



Lezoko Unibertsitateko Udala

IRAGARKIA

Bide publikoan terrazak eta mahai multzoak jartzeari buruzko ordenantza arautzailea

2012H0290002

Udalbatzarrak, 2012/09/27 datan egindako ohizko bilkuran, behin betikoz onartu zuen ondorengo *Bide publikoan terrazak eta mahai multzoak jartzeari buruzko ordenantza arautzailea*.

a) Auzitara jo aurretik, eskatzaileak, hala nahi izanez gero, erabakia berraztertzeko errekurtsua aurkez dezake 30/1992 Legearen arabera.

—Horretarako, hilabeteko epea dauka, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

—Errekurtsua aurkeztekotan Osoko Bilkurara jo behar da.

b) Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezake zuzen-zuzenean.

—Horretarako, bi hilabeteko epea dauka, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

—Errekurtsua aurkeztekotan, EAEko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzitarako salara jo behar da.

BIDE PUBLIKOAN EDO ERABILERA PUBLIKOKO EREMUETAN TERRAZAK ETA MAHAI MULTZOAK JARTZEARI BURUZKO UDAL ORDENANTZA ERREGULATZAILEA.

ZIOEN AZALPENA.

I. KAPITULUA

XEDEA ETA APLIKAZIO EREMUA

1.artikulua. Xedea.

1.1. Ordenantza honen helburua da araubide tekniko eta juridiko bat ezartzea bide publikoan eta erabilera publikoko eremuetan terrazak, mahai multzoak eta haiei lotutako instalazioak (eguzkitakoak, eguzki-oihalak, alboetako babesgarriak, upelak, etab.) jartzeari buruz.

1.2. Aurreko paragrafoan adierazitakoa betetzeari begira, terrazatzat eta mahai multzotzat hartuko dira mahaiz, aulkiz eta behin-behineko instalazio mugikorrez osatutako multzoak, ostalaritzan erabiltzen direnak legezko jardueren behin-behineko osagarri gisa (taberna, jatetxe, kafetegi eta



Lezoko Unibertsitateko Udala

antzekoetan). Jarduera horien gaineko baimena duten titularrek (pertsone fisiko zein juridikoak) jasoko dute multzo horiek instalatzeko baimena.

1.3. Debekatuta dago lehen paragrafoan adierazitako elementuez bestelakoak instalatzea, hala nola hozkailuak, salmahaiak, armairuak, bozgorailuak, etab.

2. artikulua. Aplikazio eremua.

Lezoko eremu publiko guztietan (bide publikoa, gune libreak, berdeguneak, etab.) eta erabilera publikoko eremu guztietan aplikatuko da ordenantza hau, eremu publikoak zein pribatuak izan. Erabilera publikoa zer den zehazteko, eremuaren izaera eta indarreko hirigintza planeko zehaztapenen aplikazioa hartuko dira kontuan.

II. KAPITULUA

IBILGAILU ZIRKULAZIOA DUTEN KALEETAKO ESPALOIETAKO INSTALAZIOAK

3. artikulua. Baldintzak.

Ibilgailu zirkulazioa duten kaleetan, atal honetan ezarritako baldintzen arabera emango da eremu publikoetan mahai multzoak jartzeko baimena. Ordenantza honi jarraituz, eremu publiko batean zoladura mota desberdin bat izateak ez dakar eremu hori kaletzat edo oinezkoentzako eremutzat hartzea. Bestalde, ordenantza honetan, ibilgailu zirkulazioko kaletzat hartuko dira parte zaharreko sarbide nagusitzat hartzen diren bideak.

Mahai eta aulkiek ezin izango dute trabarik egin inguruko eraikinen sarbideetan eta jendea bildu ohi den lokalen larrialdi irteeretan, ezta oinezkoen eragozpenik eragin ere.

Instalazioaren luzerari dagokionez, instalazioa ez da izango jarduera nagusia biltzen duen lokalaren fatxada baino luzeagoa (alboetako babesgarriak ere barne hartuta), kasu honetan izan ezik: Udalak erabakitzen badu instalazioak ez duela inguruan kalterik eragiten eta inguruko eraikinetako jabeek baimena ematen badute, idatziz.


Ahal dela, mahai eta aulkia espaloien ertzaren ondoan jarriko dira, luzetara.

Artikulu honetan adierazitakoa gorabehera, atal honetan bildutako neurriak baino zorrotzagoak ezarriko dira eta, areago, batzuetan, ez da baimenik emango honako kasu hauetan: gune batek, errepide zirkulazioko eremu batek eta oinezkoen eremu batek ezaugarri bereziak dituztenean interes publikoari dagokionez (ahalmen urritasunak dituzten pertsonak ibiltzeko guneak direlako, beharrezkoak direlako eraikin publikoen edo eskolen segurtasunari begira, ibilgailu asko ibiltzen direlako, etab.). Alegia, ez da terrazarik jartzeko baimenik emango interes publikoa babestu beharra dagoen kasuetan.

4. artikulua. Terrazen eta mahai multzoen estalkiak instalatzeko eragozpenak.

Eskumena duen udal agintariak atzera botako ditu estalkiak instalatzeko eskaerak honako kasu hauetan:





Lezoko Unibertsitateko Udala

Bideko segurtasunean kalte egiten badute (ikuseremua murriztea, gidariei arreta galaraztea, eta abar) edo oinezkoen zirkulazioan traba egiten badute nabarmen.

Inguruko eraikin eta lokaletako segurtasunean eraginik badute (ebakuazioetan).

Inguruneari begira desegokiak badira, edo ingurunearekin bat ez badatoz, edo hiri paisaian eragin kaltegarria badute.

III. KAPITULUA

OINEZKOEN KALEETAKO, PLAZETAKO ETA GUNE BEREZIETAKO INSTALAZIOAK

5. artikulua. Oinezkoen kaleak.

5.1. Parte zaharrean, terrazak jartzeko baimena emango da baldin eta kaleak lau metro eta erdiko zabalera badu gutxienez; betiere, terrazek ez dute trabarik egingo garbiketa lanetan eta banatzaileen eta larrialdi zerbitzuen lanetan. Zabalera 4,5 metro baino txikiagoa denean ez da baimenik emango.

5.2. Oinezkoen eremuetan ezin da mahai multzorik jarri ibilgailuak ibiltzen diren orduetan, pertsona eta ibilgailuei trabarik egiten ez dienean izan ezik.

5.3. Eguneko edozein orduetan oinezkoen gune batetik igaro behar badu baimendun ibilgailu batek edo larrialdietarako ibilgailu batek eta mahai multzoek traba egiten badute, mahai multzoen titularrek mahaiak kendu beharko dituzte berehala, ibilgailuek maniobrak egin ditzaten.

Halaber, mahai multzoak kendu beharko dira kirol edo kultura ekintzak edo ekitaldiak egitea aurreikusita dagoen kasuetan, Udalak antolatuta edo bestela, baldin eta baimenik badute horretarako.

6. artikulua. Plazak eta gune libre bereziak.

6.1. Halako guneetan terrazak eta mahai multzoak jartzeko eskaerak kasuan kasuko ezaugarrien arabera ebatziko dira, honako baldintza orokor hauen arabera:

a) Berdeguneak, jolas eremuak eta atsedenerako guneak errespetatuko dira. Ezin zaie oinezkoei trabarik egin.

b) Mota horretako eremu publikoak okupatzeko baimena emango zaie 1.2 artikuluan adierazitako lokalen titularrei bakarrik, baldin eta lokalen fatxadak alde horietara ematen badute.


c) Baimendutako mahai multzoek ezin dute bete erdigunearen % 50 baino gehiago, berdeguneak, jolas eremuak eta hiri altzariak kenduta.

d) Eskaera bat baino gehiago baldin badago gune berean, lokal interesdunen kopuruaren eta ezarritako banaketaren proportzio berean emango dira baimenak.

6.2. Ezin da Udalak baimendutako eremua baino gehiago bete, eta aulki eta mahaiak soilik jarri ahal izango dira; alegia, debekatuta dago kanpo salmahaiak, makinak, kioskoak, lurrean ainguratutako eguzki-oihal finkoak eta abar jartzea.

Artikulu honetan ezarritakoa gorabehera, atal honetan bildutako neurriak baino zorrotzagoak





Lezoko Unibertsitateko Udala

ezarriko dira eta, areago, batzuetan, baimenik ez da emango honako kasu hauetan: gune batek, errepide zirkulazioko eremu batek eta oinezkoen eremu batek ezaugarri bereziak dituzten interes publikoari dagokionez (ahalmen urritasunak dituzten pertsonak ibiltzeko guneak direlako, eraikin publikoen edo eskolen segurtasunari begira beharrezkoak direlako, ibilgailu asko ibiltzen delako, eta abar). Alegia, ez da terrazarik jartzeko baimenik emango interes publikoa babestu beharra dagoen kasuetan.

IV. KAPITULUA

BALDINTZA TEKNIKOAK

7. artikulua. Instalazioen ezaugarriak.

7.1. Baimendutako mahai eta aulki kopurua soilik jar daiteke. Aldaketarik egin nahi izanez gero, beste eskaera bat egin beharko da, eta kasuan kasuko baimena lortu.

7.2. Mahaiak kokatzeko modua baimenean adieraziko da, eta, horretarako, eskatzaileek plano bat aurkeztu behar dute, udal baimena lortu aurretik.

7.3. Elementu osagarri gisa jarri ahal izango dira eguzki-oihal edo eguzkitako mugikorak, baldin eta 2,25 metroko altuera badute gutxienez eta mahai multzoen eremuan badaude.

8. artikulua. Titularren betebeharrak.

Baimenen titularren betebeharra da terrazaren eremua garbi egotea eta higiene ezaugarriak betetzea, egun guztian zehar; horretarako, eremua erraztatu beharko dute, eta aldizkako garbiketak egin.

Bestalde, altzariak jaso egin beharko dituzte eguna amaitzean, eta eremua garbi-garbi utzi beharko dute.

Halaber, ostalaritza jarduera baten titularrak jarduera hori uzten badu, zegoen bezala utzi beharko du eremu publikoa, baldin eta ez badu egiaztatzen ostalaritza jarduerak aurrera jarraituko duela eta elementu horiek erabiliko direla.

Altzariak (mahaiak, aulkiak, eguzki-oihalak, alboetako babesgarriak, eguzkitakoak etab.) ondo zaindu behar dira, eta ezin dira lurrean ainguratu.





Lezoko Unibertsitateko Udala

V. KAPITULUA

ORDUTEGIAK

9. artikulua. Zarata.

Debekatuta dago bizilagunen atsedena eragoztearaz zarata eginez, oihukatuz edo beste edozein eragozpen sortuz; batez ere, 22:00etatik aurrera. Inongo kasutan ezin da megafoniarik jarri kanpoaldean.

10. artikulua. Ordutegia.

10.1. Terrazen eta mahai multzoen ordutegia honako hau izango da:

Udan (maiatzaren 1etik urriaren 31ra):

- Igandetik ostegunera: 08:00etatik 24:00etara.
- Ostiraletan, larunbatetan eta jai bezperetan: 08:00etatik 01:00etara.

Neguan (azaroaren 1etik apirilaren 30era):

- Igandetik ostegunera: 08:00etatik 22:00etara.
- Ostiraletan, larunbatetan eta jai bezperetan: 08:00etatik 24:00etara.

Mahaiek ezin izango dute trabarik egin kaleko garbiketa lanetarako.

10.2. Gune berezietan (aterpeak, plaza itxiak) eta bizilagunen kexak egon daitezkeen gunetan (etxebizitzaren behe solairua plazako kotarekiko oso baxu dagoenean edo beste kasu batzuetan), era honetan mugatuko da ordutegia: ostegunetik igandera, 21:00ak arte, eta, ostiraletan eta jai bezperetan, 23:00ak arte.

10.3. Oinezkoen eremu edo kaleetan, kasuan kasuko ordutegiak ezarriko dira; betiere, ezin izango da terrazarik edo mahai multzorik jarri zamalanen ordutegia amaitu arte.

11. artikulua. Otorduak.

Jatetxe lizentziarik ez duten lokalek debekatuta dute bazkari eta/edo afari zerbitzua ematea eremu publikoko mahaietan. Gainerako kasuetan, aperitiboak zerbitzatzeko baimena emango da soilik.

VI. KAPITULUA

BAIMENA LORTZEKO BALDINTZAK

12. artikulua. Baimenaren epemuga.

Baimena lortutakoan, gutxienez hilabeteko iraupena izango du eremu publikoan mahai multzoak jartzeko baimenak.

13. artikulua. Eskaearak.





Lezoko Unibertsitateko Udala

13.1. Mahai multzoak eta haien elementu osagarriak jartzeko, udal baimena lortu behar da.

13.2. Horretarako, interesdunak eskaera bat aurkeztu beharko du, honako alderdi hauek adierazita: zenbat mahai jarri nahi dituen, eta eskala plano bat, mahai eta aulkien, alboetako babesgarrien, eguzkitakoen, erretzaileentzako kanpo euskarriak eta abar nola antolatuko dituen zehaztuta. Plano honen kopia txikiagotu bat eraikinaren barruan erakutsiko da udaltzainak emakidaren mugak egiaztatu ahal izateko.

13.3. Mahai multzoa jartzeko eskaerarekin batera, jarduerari lotutako udal zergak eta tasak ordainduta dauzkala egiaztatzeko udal agiri bat aurkeztu beharko du (Zerga Bilketarako Bulegoan eskatu behar da). Agiri hori aurkezten ez bada, Udalak ofizios eskatuko du, eta ez du baimenik emango zor guztiak ordainduta egon arte.

13.4. Aldaketarik edo berrikuntzarik egin nahi bada altzarien banaketan eta materialetan, eta, oro har, baimenean eragin handirik ez duen egoeraren bat suertatzen bada, interesdunak aldaketaren berri eman beharko du, Udalean eskaera bat aurkeztuta. Izan ere, gerta daiteke egoera berriak beste baimen bat eskatzea.

14. artikulua. Baimenaren baldintzak.

14.1. Baimenak jabetza eskubidea gordeta eta hirugarrenei kalterik eragin gabe emango dira beti. Baimena izateak ez dakar titularraren erantzukizun zibila eta zigor erantzukizuna urritzerik edo bazterterik bere jardueretan, eta, bestalde, titularrak beste baimenen bat lortu nahi badu, berriz egin beharko ditu izapideak.

14.2. Baimenaren dokumentuan, honako alderdi hauek zehaztuko dira: instalazioaren eta elementu osagarrien baldintzak, zenbateko eremua hartuko duen instalazioak, baimenaren epemuga, eta beharrezkotzat jotzen den beste edozein xehetasun.

14.3. Baimena behin-behinekoa izango da beti. Zirkulazioari, hirigintzari edo beste arrazoiren bati lotutako egoera bereziak sortzen direnean, baimendutako instalazioak eremu publikotik kentzeko agin dezakete udal agintariek, arrazoiak emanez; partikularren kontura joango da instalazioak kentzea, eta ez dute kalte-ordainik jasoko.

14.4. Baimenaren titularrak ordaindu beharko ditu instalazioak eremu publikoan eragindako kalte guztiak.

15. artikulua. Indarraldia.

15.1. Baimenek hilabeteko indarraldia izango dute.


15.2. Epemuga hori amaitutakoan, baimenaren titularrak baimena berritzeko eskaera egin ahal izango du. Beste kasu batzuetan, dagokion lokalaren baimena berritu ahal izango du. Baimenik lortu ezean, instalazioa oso-osorik kendu beharko du, eta eremu publikoa zegoen bezala utzi.

15.3. Hurrengo urteetarako baimena berritzeko, garrantzizko aldaketarik egin behar ez bada, ez da beharrezkoa izango dokumentazio osagarriak aurkeztea eskaera egitean; bai, ordea, aldaketaren bat egin behar bada.

16. artikulua. Baimena lortzen dutenen betebeharrak.

16.1. Betebehar orokorrez eta ordenantza honetan adierazitako betebeharrez gain, instalazioen titularrak mantentze lanak egin beharko dituzte baimendutako lur eremuan, instalazioan eta haren elementu osagarrietan. Hala, garbitasun, segurtasun eta apaindura baldintzak bete beharko





Lezoko Unibertsitateko Udala

dituzte, eta horretarako beharrezkoak diren baliabideak eman: paperontziak, hautsontziak, etab.

16.2. Instalazioen titularrek dagozkien kuotak eta gainerako ordainarazpenak ordaindu beharko dituzte, zerga ordenantzetan ezarritako kopuruaren eta moduaren arabera.

VII. KAPITULUA

ZIGOR ERREGIMENA

17. artikulua. Baimenik gabeko instalazioak.

17.1. Udal agintariek kautelaz eta berehala kenduko dituzte baimenik izan gabe eremu publikoan dauden mahai multzoak eta terrazak, eta gordailu berezi batera eramango dituzte. Horrez gain, arau-hausleek dagozkien zigorrak jasoko dituzte.

17.2. Baimenaren epemuga amaitu ondoren terrazarik eta mahai multzorik instalatuz gero, kasuan kasuko diziplina arauak aplikatuko dira, eta instalazioek udal baimenik ez balute bezala jokatu da.

18. artikulua. Arau-hausteak.

Ordenantza honetan, arau-hausteak arinak eta larriak bereizten dira.

1. Arau-hauste arintzat hartuko da:

- a) Terrazak eta mahai multzoak adostutako ordutegitik kanpo jartzea.
- b) Baimendutakoak baino elementu gehiago jartzea (mahaiak, aulkiak eta beste elementu osagarri batzuk).
- c) Mahaiak, aulkiak eta beste elementu osagarri batzuk baimendutako eremutik kanpo jartzea.
- d) Apaindura, segurtasun eta garbitasun baldintzak ez betetzea.
- e) Mahaiak, aulkiak, eguzkitakoak, upelak, etab. ez jasotzea.
- f) Ordenantza honetan ezarritako araudia ez betetzea, arau-hauste larriak egin gabe.

2. Arau-hauste larritzat hartuko da:

- a) Mahai multzoak, terrazak eta beste elementu osagarri batzuk jartzea baimenik izan gabe.
- b) Ordenantza honetan aipatzen diren elementuak jartzea baldintza teknikoak bete gabe.
- c) Hiru arau-hauste arin egitea zigor espedientea hasi aurreko urtean. Halako kasuetan, erabaki irmo bidez ezarriko da zigorra.

19. artikulua. Zigorrak.

19.1. Ordenantza honetan aipatzen diren arau-hausteak egiten dituztenek isunak ordainduko dituzte zigor gisa. Isunak eskala honen arabera ezarriko dira:





Lezoko Unibertsitateko Udala

a) Arau-hauste arinak: 300 eurotik 750 eurora bitarteko isuna, eta/edo baimena kentzea eta, ondorioz, instalazioa berehala kentzea, Udalak hala eskatuz gero.

b) Arau-hauste larriak: 751 eurotik 1.200 eurora bitarteko isuna, eta/edo ordenantza honetan araututako baimenak lortzeko gaitasunik gabe uztea lokala bi urteko epean, eta/edo instalazioa berehala kentzea.

19.2. Zigorra jaso ondotik instalazioa legeztatuz gero, arau-haustea berriz errepikatzen ez bada edo udal errekerimendua bete bada, zigorra murriztu egingo da, eta isun bat ordaindu besterik ez da egingo.

20. artikulua. Zigor espedientea.

Zigorrak jartzeko, dagokion espedientea izapidetu behar da aurretik. Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioek zigortzeko duten ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean ezarritakoari jarraituz izapidetuko da espediente hori.

21. artikulua. Betearazte subsidiarioa.

21.1. Instalazioaren arduradunak ez badu betetzen instalatutako elementuak eremu publikotik kentzeko agindua (udal agintariak emana), Administrazioak berak bideratuko ditu kentze lanak, ordenantza honi jarraituz; hala, elementu horiek kendu, eta gordailu batera eramango ditu. Ondoren, elementuen jabeak gordailutik atera ahal izango ditu, baina kasuan kasuko gastuak ordainduta; betiere, administrazio prozedura erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/92 Legearen 98. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

21.2. Artikulu honetan ezarritakoari jarraituz kendutako elementuak ezin dira gordailuan egon sei hilabetean baino gehiagoan. Epe hori igarota interesdunek elementuak jaso ez badituzte, Udalak suntsitu, saldu eta/edo laga egingo ditu, interesdunei inolako ordainik eman gabe.

Lezo 2012-10-11.

Eneko Lartige Zabaleku, Alkate lanetan.

